

Balarrika

Xabier Mendiguren Bereziartu

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1996



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Balarrika

Xabier Mendiguren Bereziartu

Julene Azpeitia 9. ipuin lehiaketa

1996

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Xabier Mendiguren Bereziartu (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Osaba Naxariok gau hura jira eta bira emana zuen artamalutazko bere lastaira kirrikarian. Errepideko autoen burundara ohi baino sarkorragoa belarrietaraten zitzaion. Txakurraren zaunkak bestetan ez bezalako gardentasunez kolpatzen zuen eta basoko mozolo-hontzen uluak inoiz baino bertanagotik inarosten. Goizaldeko oilarraren kukurrukuak sekula baino diana zorrotzagoa jo zion.

Jaiki, goizeko errezo-marmara egin, arasa ireki eta jaiegunetako praktetan zangoak sartu zituen; gero sukaldera abiatu zen butano-sua piztu eta bezperako kafesne-zopak berotzera.

Urriko hego-haizeak lo-arindu eta eguna argitzerako logela-sabaiko habeei begira jarri zuen. Suaren gar urdin-horia bere lanean ari zen bitartean, ukuilura joan eta behiei besakada bana ailorbe banatu zien, ondoren simaur gainera pixa-parrastada bat eginez.

Gosaldu ondoren hortzak arretaz garbitu, alkandora zuriaren gainean txamarra gris-ilun arraiaduna jantzi eta txapel berria eskuan zuela ateko maratilari bira eman zion. Ataritik irteteen argi-xinta gorri-horiak, elizarako bidean urrezko zauri bihurtu zirenak, jo zituen begiz zerumugan.

Goiz-mezatarako dandara jotzen ari zela sartu zen eliza atarian eta hitz-erdika egin zien diosala harmailetan topo egindako herritarrei. Eliza argi ilun hotzean sartu eta zurezko aulki luzeetako batean eseri zen, kurpitoaren azpialdean.

Laster ekin zioten Don Iñaziok eta akolitoak meza errezatua ahopean lardaskatzeari.

—Introibo ad altare Dei...

—Ad Deum qui laetificat juventutem meam...

Osabak aitaren moduko kako-mako bat egin zuen lanean zaildutako hatz lodiaz, gero sabelpean bi eskuak tolestu eta disimuluz ingurua miatzeari ekin zion. Han zeukan aurrez aurre Mikel Goiaingerua ezpata airean zuela deabru beltzaxka hankapetu bat erdibi egiteko zorian, eta horrek laster egin beharreko txerri-hiltzea bururatu zion. Halere distrazio hura burutik lehenbailehen uxatu zuen, lanbro-egunetan baraua ez haustearren ezpainak estu-estu eginda elizara bidea joaten zirenetakoa baitzen.

Alboraxeago urrezko txahala eta amorruz harlauzak txikitzen ari zen Moises begiztatu zuen, ukuiluko bigantxa pintoak berrogei erraldeak harrapatuko ez ote zituen zalantzak menderatu zuen. Geroxeago begiak elizaren ganga aldera jaso eta pixkanaka kurpitoaren sabaiepeko Izpiritu Santuaren usoari erreparatu zion. Begira-begira egon zitzaion begi-niniak haren hanka gorrixkatan itsatsi balitzaizkio bezala. Ordurako apaiza epistola irakurtzen ari zen: gizonezkoak beren aulki zuzenetan eseri ziren eta atzealdeko emakumeek ere zumitzezko silak jiratu eta gauza bera egin zuten, aldi berean sepulturetako argizari-oholetako ezkoak tentetuz.

Osaba Naxariok begiak tinkaturik zeuzkan kurpitoko uso gris-urdinxkan eta denbora igaro ahala, zirkintxoak egiten hasi zela zeritzon; pixkanaka biraka egin eta hegalak txabal-txabal jarri arte. Osabak nekazari-esku takarraz begiak behin eta berriz igurtzi zituen betertzak gorritzeraino. Patrikatik mukizapia atera eta zintz ozen bat egin zuen bi aldetara begiratu eta gero. Begiek berriz era kurpito aldera ihes egin zioten.

"Honezkio Apotan ibiliko'ek uso elemena" pentsatu zuen bere golkorako. Gerrikoari tira egin, eskuak patrikan sartu, berriz zintz egin eta San Mikeli eta Moisesi begi-bisita egin zien. Urduri zegoen.

—Dominus vobiscum

—Et cum spiritu tuo.

—Sequentia sancti Evangelii secundum Matthaëum.

—Gloria tibi Domine. In illo tempore...

Osaba Naxariok zitzu bizian zirrimarratu zuen airean gurutze santuaren seinalea aurpegitik amelaun imajinarioak kentzen balebil bezala, baina berriz ere begiek kurpito aldera ihes egin zioten, eta buru barruan "Apotan tiro baten ibiliko'ittuk" tentaziozko pentsamenduak sortu zitzaizkion.

—Laus tibi Domine —esan zuen akolitoak; bukatu zen latinezko ebanjelioaren irakurketa eta apaizak bere kasuila berdea lisatuz esertzeko keinua egin zien eliztarrei. Instante batean aulki-sillen kirrinka eta biratze-hotsak baizik ez ziren entzun.

"Anai-arreba maiteok: Gaurko Ebanjelioan Jesukristok inor ezin daitekeela bi nagusiren morroi izan esaten digu. Edo bata begitan hartuko duela eta bestea maitatu, edota batari eutsirik besteari muzin egingo diola..."

Osaba Naxariok uso bati tiro egin behar zionean horixe bera gertatzen zitzaiola pentsatu zuen. Derrigor aukeratu beharra izaten zuela. Ez zeukala aldi berean biri tiro egiterik.

"... Senide maiteok, horrek esan nahi du ez dagoela Jainkoaren eta Mamonen morroi izaterik... (Mamon hori 're izango 'ek iñon kontua bizi nahiekan bat)...eta horregatik esaten digu Jesukristok ez degula kezkatu behar zerez bizia hazi, zertaz soina jantzi; izan ere bizia janaria baino areago da eta soina soinekoa baino. Gero esaten digu, kristau maiteok, hor daudela eguratseko, aireko, zeruko hegaztiak (Osaba Naxariok alehungarren aldiz begiak kurpitoko usora zuzendu zituen) ereiten ez dutenak, ez itaitzen, ez mandioetara biltzen, eta halere Goiko Aitak hazten dituenak..." (Osaba Naxariori tabernan entzundako txantxangorri-aztalaren txiste txarra bururatu zitzaion, baina irreberentzia hura lehenbailehen burutik kentzen saiatu zen. Utikan!).

Apaizak bere ahots sudurkari patxadatsuarekin astindu ederra eman zien basalilliei, Salomonen edertasunari eta labera botatzen den belar-izpiari. Gero ahotsa trumoi bihurtuz "modicae fidei", "sineste urriko" deitu zien eliztarrei. Zer jana eta zer jantziaren kezka alde batera uztera gonbidatu zituen. Naxariok zaila iritzi zion aste guztian aztarka batean ibili eta gero jatekoa eta janztekoaz ez kezkatzeari, esku kailutuei begiratzen zion bitartean, eta oin-puntetara begiratzean zapata muturretik askatzen hasita zeukala ohartu zen. Arrania!

Azkenik apaizak, eztarria garbitu eta eskuineko besoa gora altxatuz, ozen eta irmo esan zuen:

"Badaki zuen Aitak horien guztien behar zeratela. Quaerite ergo primun regnum Dei, eta justitiam ejus: eta haec omnia adjicientur vobis.. Bila ezazue, beraz, lehenik Jainkoaren Erreinua eta haren zuzenbidea, eta beste horiek gehigarri emango zaizkizue"

Bira eman eta "Credo"ari ekin zion apaizak. Organo-soinuaren ordez — ordu hartan organo-jolea maindireekin borrokan ari zen— elizara presaka eta arnasestuka etorritako katarrotsuen ezul-doministikuak baizik ez ziren entzuten.

Osaba Naxariok ezer gutxi atera zuen garbian erreinuko zuzenbidetik eta gehigarrietatik ("Sobrare leku zelaie, laue dek, pentsatu zuen bere baitarako, eta eskupekoa edo zeoze ematen die").

Ondo kostata baina pozik entzun zuen Osaba Naxariok apaizak "Ite missa est" esanez etxera edo Apotara joateko eman zion baimena.

Apaiza eta akolitoa latinez marmarka utzi eta bedeinkapena bizkarretik hartuz, "Benedicat vos omnipotens Deus, Pater, Filius eta Spiritus Sanctus" hitzek elizako pontetik atera bidean harrapatu zuten atzamarrekin imintzioka.

Normalean tabernara joan eta salda beroa eskatzen zuen lukainka-mutur batekin baina egun hartan ez zegoen kutixi horietarako, kaminoan behera abiatu zen deabruak daraman arima bezala.

Etxera iritsi orduko panazko praka berdexkak eta kazadora marroi-iluna jantzi, kantinplora urez eta zahatoa ardoz bete, aurreko egunetik prestatuturiko tarterarekin batera motxilan sartu zituen. Larruzko botak artilezko galtzerdi zuriekin jantzi eta kartutxera gerrian tinkatu zuen, eskopeta bi zatitan desmontaturik zorroan zuela, trenerako bideari heltzeko.

Osaba Naxario mutil zaharra zen eta —berak aitortzen zuenez— mutikotatik lanean aritzeko jaioa ("Mundu hau ez dek gutzat gozatzeko izan" esan ohi zuen.) eta urtean bi arnasbide izaten zituen eskopeta bizkarrean trabeskatu eta Apota edo Atxurtzara uso-pasera joaten zenekoa eta astobalatan egun osorako familiarentzako jakiekin Kizkitzako Amabirjinaren festa-egunera joaten zenekoa, zeren astero meza ondorengo tabernako berriketaldia eta salda, eta noizbehinka feriaren batera joan eta mokadu goxoren bat edo beste egitea errutinazkotzat jo behar baitziren, eta baserri-martxarako beharrezko ziren berri eta albisteak biltzeko erdi-lan eta erdi-atsedenezko eginbehartzat. Gainera, urtean ezinbestean metatzen zuen erasokortasuna —noizbehinka oihu batzuk egiteko ere emazterik ez izaki— uso, hegabera, xoxo, birigarro eta erbiei tiroka (txantxangorriei sekula ez Jesukristo hil zenean Golgotan burutik arantzak ateratzen ibili omen zitzaiolako) kanporatzen zuen, tarteka agertzen ziren gabirai edo zapelatzen baten kontra ez zenean; basakatuak eta horrelakoak zepoz harrapatzen zituen eta horiek

hoztasunean egindako harrapaketak izaten ziren, agresibitatearen hain deskargabide hain aproposak ez zirenak.

Trenak Otzaurteko jaistokian utzi zuen eta bertan bildu ziren beste ehiztari batzuekin batera mendi alderako igoerari ekin zion, ibilalditxo baten ondoren artzain-txabolara eta inguruko postuetara iristeko. Urteroko bilgunea zuten Ezkio, Gabiri, Ormaiztegi, Segura, Idiazabal, Mutiloko eta inguruetakoko ehiztariak, Donostia eta Eibar aldetik etortzen ziren diru-usaineko eta arranditsuagoekin batera.

—Aupa, Ezkio, aurten 'e axion bat eiñ beharko 'ek —bota zion Zaldibiko Exkerrak.

—Polbora lehorra eta postakin netorrek bazpare —erantzun zion osaba Naxariok txantxa-doinuan.

Eibartar enpresari-talde ongi hornitu eta armatu bat abiatu zen orduantxe puntuan bizikari eta kanpaina-dendarako tresna guztiak mando alokatutan zituztela. Zamaltzaina jakinaren gainean jarria zuten eta goiz erdiko trenan iristerako zain zeukaten Apotako artzain iharra. Eibartarrek zirika erabili arren, barrenean errespetua zioten osaba Naxariori, zeren azken modara pertretxaturik ibiltzen ez bazen ere, tiro biko bere eskopeta zaharraz begia non perdigoia han ezartzen baitzuen. Osaba Naxariok ez zeraman haiek bezala ehiza-txakur ongi zaindu eta guririk eta berak joan eta bildu behar izaten zituen eraitsitako harrapakinak. Halere bost axola osaba Naxariori, eskuak usoz edo hegaberaz beteta postuen azpialdetik ostera egin eta etortzen zenean irribarre zabalarekin begiratzen zien giza puska ongi zuzkitu inbidiati haiei.

Osaba Naxariok pago-adartxo bat eskuaz moztu eta ahoan sartu zuen:

—Aho lehorte'ek bestela —esan zion bere modukoa zen Zaldibiko Exkerrari.

—Ezkio eta konpainia, ekarrizuez hona horrek kanpaina-dendok —esan zien Sarakasketa eibartarrak beti bere balentriak askoz handiagoak izan ohi zirelako "Bi halako" ezizenaz ezagutzen zutenak—. Hemen bajaok tokixa, zuen trastiendako eta beste hamarrendako be —jaregin zuen irribarre aitakorrez.

Osaba Naxariok aitzakiaren bat laster atera zuen eibartarrarekiko zorretan ez gelditzeko, baina Zaldibik gustura ezarri zizkion mandoari Testamentu Zaharrekoa zirudien etxola-dendatzar handi moldakaitz hura. Laster hasi zitzaion ziri eta puntara-zaparrada hain "bihotz-zabalez" zamaria eskaini ziotenengandik.

—Eantzuioak oain horri, Exkerra —esan zion Naxariok eguzkiaren kontra eskuaz begiak itzalpetuz—. Hemen iñok ez dik eze debalde ematen. Narrutik kobrauko die. Hemen tontok bakantzen ai'ttuk eta hoek amorruta tonto-bila zebiltzek.

Aurreko urteko uso-paseko kontuak berritzen hasi ziren, pixkanaka erreka sakonaldea utzi eta gainaldeetako iratzeetan zehar sartu zirenean.

—Gue garok'e han eongo 'ittuk —bota zuen Exkerrak.

—Eztizkik iñok eamango— erantzun zion Naxariok—. Hemengo jirak eindakon 'e hantxe eukiko 'ittuk.

Eguzkiak gero eta erreago hartzen zuen eibartar eta goierritarrez osaturiko espedizioa eta halako pago-itzalune batean keratxoa egin eta zahatoetako ardoei astindu bat eramatea erabaki zuten.

—Ondiño ez dok ganorazko uso-bandadaik agertu gaur. Alper-biajia ez ete juau egingo, gero?.

—Usoik, ez dek pasa, baiño antzarrak eta kurriloak bai —esan zion Naxariok zahato betea luzatuz eibartarrari.

—Itxi eik hori, hemetik edan biok, jun dan hilian Erriojatik ekarritakua dok.

Naxariori ez zion graziarik egin bere ardoari mesprezio hura egiteak eta zahatoak trukatu zituzten. Sarasketak hartu eta alboko ehiza-lagunari luzatu zion osaba Naxarioren zahatoa:

—Edaik, ia pike-gustorik daukon, iazkuak lez.

"Tiropin" Maestria eskolako irakasleak iritxo maltzurrez hartu zion Naxariori eskutik zahatoa eta zarrasdaka luzea edan zuen gurgurka zintzur-sagarrari gora eta behera eraginez eta paparreko bizarrak erregariatuz. Gero apur batean ahogozatu eta ezpainak luzatu eta uzurtu ondoren hotz eta motz esan zuten:

—Ona jaok baia epela.

—Hori gero konponduko diau, itturriko udetan; pike-gustoa zailagoa dek kentzen —erantzun zion isekati osabak. Gero Sarasketaren sakadak ikusita gehitu zuen—. Hola estutuzkio berriz'e izango 'ik pike-gustoa ardok.

Eibartarrek gazta-zati batzuk jaten hasi ziren eta osaba Naxariok txokolate-kosko batzuk atera zituen.

—Zer, Ezkio? Umien modura gozokixak jaten ala? Hori dok hori ehiztariandako tripa-muniziñoia.

Osaba Naxario pixka bat nazkatzen hasita zegoen eta petralkeriaren bat pentsaturik zeukan erantzuteko, baina bat-batean uso-bandada baten farfarra entzun zuten Apota aldetik eta barkatu egin zion. Zalapartaka zahatoei muturretakoak kiribildu, jakiak motxiletan sartu eta mandoari arreka maldan gora abiatu ziren bidezidorretik.

"Lastima" esan zuen osabak ahopean.

Ordu erdi geroago eibartar gurien lepagainak izerdi-patsetan zeuden eta osaba Naxariok barre egiten zien kapelapetik haien arnasestuei.

—Renfeko txokolaterak baino putz gehiao dabilzue. Etzaete oso zailduta, arrania!

Arinago zebilen Zaldibiko Exkerrak harrapatu zuen gaina lehenik, atzetik osaba Naxario zuela eta handik tarte batera iritsi ziren eibartarrak mandoarekin. Artzain-txabolara zuzendu zituzten pausoak bertan freskatu bat hartu, beste trago bana egin eta ehiza-postuetara abiatzeko.

Artzain-txabolako atean mantalean eskuak xukatuz egin zien abegia ardi-mondejuak egosten ari zen artzain-andreak "Zer moduz? Zer moduz" galdezka. Senarrak eskuratu zion mandoari kapestrutik heldu eta atalondoko txirindolatik lotu zuen. Ehiztariak txabolako itzalpe keztatura sartu ziren eta ardo-freskoaren bila eta lukainka-mutur bana jateari ekin zioten laster izango zuten aireko bidaiariei deklaratu zion gerrarako indarrak hartu nahiz. Txabola-andreak

esan zenez, donostiar eta nafar batzuk ostiraletik postuetan zebiltzan baina hegazti gutxi igaro omen zen aurreko egunean eta gau aldera zerbait giroa animatzen bazen ere, sarritan oso goitik pasatzen ziren bandadentzat munizio ona behar omen zen.

—Eibarko muniziñoak atrapatetan ez dauanik, ez dau beste inok atrapauko —esan zuen Sarasketaren lagun moztakak, esku-gainaz ardo-bigoteak kenduz.

—Munizioa putza dek, begiik eta eskuik pe —bota zion Naxariok.

Eibartarrak mardulak gaizki hartu zuen bere ehiztaritasuna zalantzan jarri zuen oharra eta mendeku bila hasi zen.

—Ze? Ondiño etxian kargautako kartutxoakin ibiliko haz, ezta? Hor pausauko euan errebordeadoriari erain eta erain negu guztixa.

Eibartarrak txukun metaturiko kartutxo beteriko kaxa dotorea atera eta harroki mahai gainean ezarri zuen.

—Hona hemen Eibarkuak, munduan besterik ez lakuak.

Gero hatz zuri lodikote bat atera eta Naxariori luzatu zion kartutxo gorri distiratsua. Osaba ez zen berak etxean kargatu eta errebordeatutako kartutxo zakatzagok ateratzera ausartu. Naxariok baserriko ogiarekin konparatzen zituen bere kartutxoak: itxura zakarragoa baina indar gehiagokoak zirela esanez. Auzia tiroka ebatzi behar zenez gero parapetoetara iritsi arte panparroikeriak alde batera utzi eta urdailari berea ematea erabaki zuen.

Osaba Naxario eibartarrak baino presa handiagoarekin zebilen Zaldibiko Exkerrarekin urtero erdibana hartzen zuen postura iristeko. Entzuten zuen tirohots bakoitzeko altxatzeko imintzinoa egiten zuen. Hamaiketako eibartarrek ordaindu behar izan zuten derrigor, eta Sarasketaren lagun bizkar-zabalak golkotik behera indarrez sartu zion Naxariori atera zuen hogeiturokoa. Mandoa eta txakurrak berriz hartu, postuek zeuden mendi-maldara eraman zituen segizioan atzetik lau ehiztariak.

Supituki parapetoen atzetik ustekabeko ongi etorria izan zuten.

—Nazario Azenario! —bota zion bere burua gehiagotzat daukanaren tonu erdi-destainati erdi-aitakorraz donostiar guriak.

—Miner Piper, jango huke baheukake, arkuma-izter —erantzun zion Osaba Naxariok zirtoak bihurtzeko erreflexu onak zituela erakutsiz.

—Urtebete mutilizaharrago, ezta Ezkio?

—Hemen andragoia bilatze'ez badiak bai, baina ez neok etsita.

Zaldibi urduri zegoen eta kontu lelo haiek bazkalosterako uzteko eskatu zien petralduta. Lehenbailehen postua atondu eta gauzak bertan antolatu zituzten, denda jartzea arratserako utzirik. Halere, berehalatik lan handirik ez zutela izango susma zitekeen donostiarrek aurreko egunean harrapatutako sei uso eta ahate bakarretik atera zitekeenez. Bi eibartar, osaba Naxario eta Zaldibiko Exkerraren moralak polbora bustia zirudien. Txakurraren inkezak eta pagaditik zetorren hego-haizearen pirpiria ia besterik ez zen entzuten. Tarteka alboko mendiek tiro bakanen baten oihartzun biderkatua igortzen zuten.

Arratsaldea baketsu eta aspergarriegia izan zen ehiztariantzat, aukera gutxi eta zailekoa. Zaldibi eta Naxario txandaka igotzen ziren pinu-gaineko parapetora, eskuez begiei itzal eginez iparraldetik berandutik berandura

zetozen bandaden ataizean. Arratserako uso-saldoak zerbait sarriago hasi ziren pasatzen. Tiroak mendiaren hegal batetik besteraino entzuten ziren sailean. Eskuratutako lehen uso eta hegaberekin ehiztarien umore ona ere hobetzen hasi zen.

—Afarixa bajaukagu— iragarri zuen garaikor Sarasketak.

Naxario muzin samar zegoen, harrapatutakoari asko ez zeritzolako edo donostiarrek mutil zaharra zela gogorarazi ziolako. Bestalde, tiro-andanak zarratuagoak izaten ziren hegaztiak eibartar eta donostiarren paretik igarotzean, bost tiroko eskopetak zituzten seinalea. Horrek ere ez zion grazia handirik egiten osaba Naxariori.

Ilunabarrerako argixeago zegoen ehiztarien begia baina emaitzak ez ziren morala oso goian jartzeko modukoak: donostiarrek launa uso, ahatea eta bi hegabera, eibartarrek bina uso, eta antzara, eta osabak eta Exkerrak hiruna uso eta lau hegabera eta ahatea. Eta hori kartutxo-azal piloa egin eta gero, noski.. Bizpahiru aldiz "V"ak eratuz baina demoniotako goieran beste hegazti handiago batzuk ere ikusi zituzten baina tiro egiterik ere ez merezi izateko moduan. Zer hegazti-mota izan zitezkeen ere alde-alde bakarrik zekiten. Minerren, ehiza-katedradunaren ustez kurriloak ziren ("in utroque" omen zen doktore ars venandi eta ars amandi-n, nahiz eta osaba Naxariok ahuntz-erdara horrekin zer esan nahi zuen gehiegi ez ulertu, fede gutxi ematen zien haren kakarakei eta doktor ez baizik potor titulua merezi zuela esaten zion); Sarasketaren iritzian, berriz, lertxunak, gorriak ala hauskarak ziren zehazteko bezain ziur ez bazegoen ere.

—Baita zera ere, hoiek "Balearica" izenekuak dituk, hemendik gutxitan pasatzen dirianak. Mokope gorrija eta buruban mortxaka daukatenak dittuk, aiskiria.

Naxariok gora begiratu eta "balarrika, balarrika" errepikatu zuen, arao bat errezitatzen ari baillitza; latina zipitzik ere ez errosarioko letaniak eta meza-bezperatan buruan gelditutako esamolde bihurrituren bat izan ezik, baina jakin, bazekien antzara, hegabera, usoa, ahatea, kurriloa "balearica" zein bestelakoa, mortxakaduna edo gabea, baserriko sukaldean bere eskuz kargatu eta errebordeadoraz itxitako kartutxoez tiramenean harrapatutako ia gehientsuena jo eta ziplo eraisteko gauza zela. Eta "Nik emango zieat horii "balarrika" esanez (grazia egin zion nonbait hitzak) prakak askatzera joan zen pendizaren azpiko iratze-sailera, berak esan ohi zuenez ez baitzegoen ehiztari kakalarrtua baino gauza tristeagorik, ehiztariak zerbait izatekotan pazientzia eta patxada behar omen dituelako. Horregatik beharrak ondo eginda ibili behar zela ehizean esaten zuen.

Iluna mendien isla ezarian irensten ari zela, zeruko oskarbi beltzean ilargia nagusitu zen galirinezko talo erraldoi baten antzera. Osaba Naxariok eta Exkerrak tarteran etxetik ekarritako patata-tortilla eta oilasko-bular frijitu hotzak jan zituzten mazka-mazka erdibanatu ondoren, zahatotik ardo-zurrustada luze batez erregariatua. Gero osabak sagar kaskar bat panazko prakan igurtzi eta mendi-labanaz astiro puskak ebakiz eta astiro ahoratuz jan zuen, Zaldibik termotik kafe beroa zurrutaka, puzka eta mekauenka edaten zuen bitartean.

—Otsok —esan zion Naxariori—, hotzak kentzeko moukoa zeok, aizak, gauek luze joko'ik eta, bat'e paseik baldin b'a beintzat.

Eibartarrek, zertxobait goragotik, pattarrik nahi al zuten galdetu zien eupaka eta algaraka, baina Nazariok usoak edo zirenak zirelakoak harrapatzera etorri zela eta burua mozolotzen duen edaririk ez zuela behar erantzun zien, urteko parranda bakarra Samieletan egiten zuela eta.

Tarteka uso-bandadaren bat sumatzen zen hega-zafraka eta pareratzean parapetoetatik tiro-soinu burrunbariak egiten zien gaizkietorria sailean. Exkerrak, begitik negarra zeriola, bistaz "baju samar" zebilela eta antzeko aitzakia batzuen ondotik uko egin zion gauez tiratzeari; bere eskopeta kargatu eta bolada zetorrenean Naxarioi pronto uzten zion alboan. Osaba Naxariok herioan ateratzen zuen atzazal-soinuak eta haren erredioskak urduri jartzen zutelako zen sobrare, eta ez beste ezergatik.

Ilargitara patrikako erlojua atera eta hamabiak zirela ohartu zenerako zazpi uso eraitsiak zituen.

—Bihar sesioa izango diau horik biltzeako. Lepoa jokauko nitek erdik ez dittuula bilauko. Bazekiat nik hor goiko horin berri, —eibartarren alderako burukeinu bat egin zuen— beren txakur eta beren bulla guztiikin, ehiza ziplauko ziuek, al badie.

Ordu batak aldera karranka sor eta urruneko bat entzun zen eta handik gutxira ilargitara zilarrezko hegaztitzar lepa-hanka-luzeezko saldo bat jo zuen begiz osaba Naxariok. Eibartar eta donostiarrak ere patarraren lurrin artean ohartu ziren zerbait berezia zetorrelakoaz. Goitik zetozela eta perdigoia larriena erabiltzeko gomendioa zabaldu zen postuen artean. Saldoa pareratu zenean ia inork ez zekien zehatz-mehatz zeri disparatzen zitzaion baina tiroek sailean landatu zituzten su eta kezko loreak gau oskarbian. Naxariok motxilaren patrikatik arrapaladan bi kartutxo atera eta zalapartaka enaldu zuen arma. Exkerra oharturik zegoen ordurako aurreko postu guztiek huts egin zutela, migratzaile uniformedunen erakuntza zertxobait endredatzea besterik lortu gabe.

—Pare-paren dauzkek, botaiak, dedio! —esan zion Zaldibik lepoko zainak lehertu beharrean eta esku gainaz begiak igurtziz. Orduan osaba Naxariok ilargitara dirdira ohotza egiten zuten eskopetaren bi laztanduz bezala munduko denbora guztia baleuka bezala, eskuin begia itxi eta bi tiro lehor ia bat-bateko jaregin zituen. Oihartzunak menditik erantzun zuenerako, osabak eskopetaren atzarakadarekin oreka galdu eta parapetoan katigatu zuen eskua Zaldibiren gainera ez erortzeko, armaren muturrari ke urdin-zurixka zerion bitartean.

—Jo diat! —esan zuen hotz eta motz balentriari garrantzi handirik eman nahi ez dionaren labur-beharrarekin.

Hegaztia kulunka, hegaldi-erritmoa aldatuz, bilin-bolonka nola amildu zen, sastraka eta sasi artean nola ilunak jan zuen ohartu ziren bi ehiztariak. "Biba, Exkio!" oihu egin zuen norbaitek albo posturen batetik. Igarri zioten ukitu ziola piezaren bati, baina ez zela tiro bete-betea izan. Horregatik elkarrenganatu zirenean batzuek gogoz eta besteak gogoz kontra zorionak eman zizkieten, suhar faltsuz abonatu zioten hegaztiaren tamaina, gauez eta hala azertatzeak bazuela meritua eta antzeko koipekeriak esanez, baina inork ez zion pieza hura eskuratuko zuen esperantzarik eman. Osaba Naxario ez zegoen berak zioenez kakazukeria haiek entzuteko, eta Zaldibi denda barruan zurrungaka hasi bezain laster linterna esku batean eta makila bestean zuela,

maldan behera abiatu zen bere ehiztari-sena gidari eta ilargia beste lekukorik gabe.

Ez Zaldibiko Exkerrak, ez Sarasketak eta bere lagun mondrongoak, ezta Miner eta bere adiskide iharrak ere, inork ez zekien orduan eta ez daki orain ere osaba Naxario zenbat orduz aritu zen han beheko lahar eta goroldio artean aztarka, ezta zer ibilerak egin zituen ere gau hartan. Baina hurrengo goizean aurpegia arrastada eta urratuz beterik, nazareno aurpegiarekin, gaueko mamu eta ieltxu guztiekin harramaska ibili izan balitz bezala, prakak narrastuta eta lur-arrastoekin, buruko ile bakanak nahasirik eta tente zituela, dendatik falta zen osaba Naxario pauso geldoan agertzen ikusi zutenean, irribarre erdi-maltzur erdi-ase bati eutsiz, ezina ekinez egin duenaren patxadarekin, artzain-txabolan baraua haustera bildutako ehiztari guztiek begiak behin eta berriz igurtzi behar izan zituzten aurrean zeukatena ipuinetako irudi bat ez, baizik eta hezur eta haragizko Naxario zela sinesteko. Ondoren begirada guztiak imanak erakarrita bezala eskuin eskutik zintzilik zekarren kordelera zuzendu ziren eta haren atzean, erregina zaurituaren pausajearekin, ttikun-ttakun, oinez zetorren hegazti lerdinarengana. Mokopeko gorriune biziaz gainera, ezker hegalean tiroak eragindako gorrigune ilunago bat ageri zuen. Alde batera eta bestera mugitzen zuen buru mortxakaduna, gertatzen ari zen guztia melankoliaz ulertu bai baina onartuko ez balu bezala.

Ehiztaria eta hegaztia txabolaren aurrera iristean txabola-andrearengandik hasi eta Exkerra beterretuarenganainoko ehiztariz osaturiko zirkulu-erdi batek egin zion ongi etorria.

—Zer dok hori, Ezkio? —galdetu zion ziplo Sarasketak kokotsa igurtziz.

—Hau? Ze izango'ek ba? Andragaie! —erantzun zion Naxariok eliza aurreko eskaileretan emaztegaiari laguntzen dionaren harrotasunez.

—Eta zelan jaukak ba izena? —galdetu zion moztakak.

—Balarrika! —erantzun zion Naxariok ezbairik gabe eta serio-serio.

* * *

Beti misterio izango da osaba Naxariok kurriloari zergatik deitu zion "Balarrika": Minerrek "Grus Balearica"ren hipotesia bota zuelako, tiro egitean erabili zuen perdigoiak gozotasun gutxiko postak zirelako ala bere euskara eta erdara nahasizko ironia-kolpe batek horixe mihiratu ziolako. Kontua da denbora pasatzean izenak bilakaera izan zuela eta azkenerako osaba eta ingurukoak kurriloari Pilarika deitzeraino iritsi zirela, adiera arrarotu ahala esaera erraztuz.

Balarrika edo Pilarika kurriloa trenean aurrea eta jaistokitik baserriraino kaminotxoan gora taka-taka eramane zuen osaba Naxariok eta bertan ume jaioberriaren haragi minbera eta guriena baino ere arreta handiagoz zauria zaindu eta sendatu ondoren, alanbre-sarezko kaiola zabal batean ostatatu zuen halakoren batean indarberitutakoan jaregin eta berriro bere bideari ekingo zion esperantzaz (Afrikan, Aljeria alden egiten omen zituzten kumeak hegazti horiek Minerrek esan zionez). Beraz kurrilo magrebtarrak osabak inguraturiko era guztietako zomorro eta piztia txiki guztiak jaten zituen eta mota guztietako ale eta hazien hornidurarekin; beraz, ez zen harritzekoa halako orrits-oturuntzen ondorioz egun gutxiren buruan suspertu ez ezik gizendu ere egitea.

Osaba Naxariok tarte luzeak ematen zituen etorkin —eraiskin— hankaluzearen karranka imitatzen baina aukera gutxi izaten zuen ikasteko, ia beti mutu egoten zenez gero.

Osabak oso argizat zeukan eta eguraldiaren aldaketa guztiei aurrez igartzen ziela aitortzen zuen eta onetik irteteraino haserretzen zen norbaitek kontra egin eta horiek bere ameskeriak zirela esaten bazion. Osaba lerdea zeriola egoten zen Pilarikaren mortxaka txairoari eta paparreko gorri biziari begira eta ez zegoela munduan hegazti lirain eta dotoreagorik esaten zien bere "andragai" ikustera etortzen ziren bisitari guztiei.

Igandetean goizeko mezatara edo meza nagusira joan eta kurpitoko usoari begiratzen zionean, hasieran uso gisara ikusten zuen hegazti zerutar hura pixkanaka hazi egiten zen bere begietan hankak luzatu papo alde gorritu eta buru gainetik galdortuz, eta hainbestearaino eraldatzen zitzaion non behin baino gehiagotan albokoek "Pilarika" esaten harrapatu zuten harriduraz. Inork ez baitzuen uste adinean aurrera zihoan neurrian Amabirjinarenganako debozio berezi baten menpe eror zitekeenik. Are gutxiago elizan aurrez zeukana Ama Doloretako zelarik, eta urte banaka batzuk lehenago etxetik erreka alderako zuhaitz artean neska-mutiko batzuei agertu zitzaiena ere diseinu berekoa izan zelarik. Zertara zetorren usadioz malkoa, dolua eta zotina baizik ageri ez zuten amabirjinen herrian Pilarika esaten hastea jakulatoria gisara elizkizunaren erdian?

Misterio hori ere ez zuten gehiegi argitu Naxarioren balentria ezagutzen ez zutenek, ezta Balarrikatik Pilarikarako bilakaera fonetiko-fonologikoaren ondorioz sortu zen aldi berriaren jakitun ez zeudenek ere.

Egunak joan eta egunak etorri, iritsi zen halako batean osaba Naxariok erabaki erdiragarria hartu beharreko ordua, bere amorante-gatibuaren askapen uneara. Eguberri aurretikoko arratsalde eguzkitsu bat aukeratu zuen zelaira eraman sokatik eta korrika-saio batzuk eragin, eta azkenean, hegaldarazteko. Montgolfier anaien exhibiziora bezala adiskide eta ezagun bat baino gehiago gonbidatu zituen. Minerrek ezin etorria adierazi arren, telegrama bidali zion, esanez hankan txartel bat idazteko "Allah Akbar" zioena, hori mairuek aintzakotzat hartuko zutela eta. Zaldibiko Exkerra ere etorri zen eguzki-betaurreko handi batzuk jantzita, begietatik negarra zeriola.

Osaba Naxariok hasieran ehizako alkandora berde nabarra jantzi zuen, baina gero iruditu zitzaion kolore horiekin jantzita ikusteak shocka eragingo ziola hegaztiari eta egun seinalatua zenez gero, igandetako alkandora zuria jantzi zuen. Pendizean bildutako guztiek abonatu zioten osabari hegaztiak zeukan itxura bikaina eta inork ez zuen zalantzan jartzen behin hegaldatuz gero Afrikaraino eta behar izanez gero Hego Poloraino ere iritsiko ez zenik "Grus balearica regulorum" hura. Ikusle guztiak bildu zirenean —hogeikoren bat etxeke eta kanpokoekin— osabak sokatik hartu eta zelai-goreneraino eraman eta korrika saio batzuk eragin zizkion. Gero jendaurrean jaregin, lepoko soka askatu eta begirune guztiarekin eta isiltasun osoz mundu guztia begira edukitzea lortu zuen. Kurriloak buruko mortxakari eragin eta zirin zuri-berdeska bat egin zuen. Ondoren osabak musu antzeko bat eman eta malkoak begietan bai irtengo - ez irtengo zituela txalo batzuk jo eta maldan behera abiarazi zuen, inguruko oihu, garrasi, txalo eta barre-algara ozenek lagundurik.

Hegaztia aldapan behera abiatu zen alderoka eta zabuka, sigi-saga eginez, eta karranka larri batzuk jaregin ondoren, hegalei egundoko abailan baina inolako simetriarik gabe eragin zien. Hankak lurretik ozta-ozta aireratu bai baina berriz ere tarraska eramaten zituen zati batean, halako gaingunetxo batetik amildu zen arte. Egin zituen metro batzuk hega-zafraka neketsuan, karranka larriago batzuei jaregin eta eguzkiak hegaletako argizaria urturiko lkaro berri baten antzera tupustekoka eta oztopoka lurreratu zen ikusle guztien nahigabezko heiahora eta lanturu artean.

—Kariolan eotek kalte ein dio. Oiturea galdu do —esan zuen osaba Naxariok garrantzi txikiko matxura motorrari iragartzen dion mekanikariak bezala.

Atzetik joan eta bizpahiruren artean harrapatu eta berriz ere zelai goenera eraman zuten. Bazen han erdi-petrikilo eta sasi-albaitari gisa ibiltzen zen Ezurmendi izeneko brusadun tipoxo bat eta ezker hegala hartu eta ukitu batzuk eman orduko apezpiku-doinuz esan zuen:

—Honek bere bizitzako hegaldik ein zetik. Seguru eon!

Osaba zuri-zuri eta hitzik josi ezinda gelditu zen. Tristura eta poza nahasturik aurpegiratu zitzaizkion. Ingurukoak banatu egin ziren sentimendutan: batzuek doluminak ematen zizkieten egun handia hondatu zitzaiolako, besteak zorionak opa zizkieten aurrerantzean beti berekin izango zuelako, banaka batzuek aukera bat zein bestea hain garbi ikusten ez zutenak agian erabat sendotuko zela, hezurak soldatuko zitzaizkiola eta egunen batean Txindoki alderantz hegaz ezkututzen ikusteko esperantza ez galtzeko esaten zioten, mirari zailagoak ere gertatu izan zirela eta.

Zauria ongi sendatua zeukan, noski, kurriloak baina tiroak libratutako hezurak ez zitzaizkion behar bezala itsatsi eta hegalak ez zion erantzuten, beraz era guztietako aholku, kontseilu eta burubideen artean elbarritua etxera bihurtzen duenaren pausajearekin Pilarika eta osaba baserriko ataripera itzuli ziren.

Etorri ziren elurak, pasatu ziren berriz eta ahate, antzar, uso, kurrilo, lertxun eta antzekoak Hegoaldetik Iparraldera eta alderantzitara. Atxurtzan eta Apotan ehiztariek pattarra edaten zuten eta sagarrak jan zituzten mendilabanekin pusketak astiro ebakiz. Osaba Naxariok berriz ere usoak, antzarak, ahateak, hegaberak eta antzeko hegazti ugari ekarri zituen gerrikotik zintzilik galtzontziloak bistaratzera inoiz ez zuen Pilarikaren modukorik ezer harrapatu, ez bizirik eta ez hilik.

Negu batean hotzetik behar adina babestu ez zuelako edo jateko eman zizkion txerri-hilondokoek edo auskalo zerk gaitz eginda makaltzen, moteltzen, belaskatzen hasi zen Pilarika (ordurako ia Pila eta Pili izena ere hartzen zituen hura); malenkonkia-aire galdu batekin begiratzen zien osabari eta inguruko guztiei adio neketsu bat entseatzan ari bailitzan. Laster sendu zuen osabak balbea inguruan zebilkiola. Ahalegindu zen salda beroa mokotik barrena sartzen, ganbarako kutxan aurkitu zituen koloretako belusa zatiz hegaztia estaltzen, Karnabaletako Arlekinoaren itxura emateraino; araoak eta erreguak egin zituen Pila, "Allah akbar" eta beste hitz ulertezin batzuk nahastuz horrek kumaroko sentimenduak agian birbiztu eta bizitzeko gogoia areagotuko ziolakoan. San Antonio animalia maiteari bederatzurrera hasi ere egin zion, egunero ur eta erramu bedeinkatuz hegazti eritari bizkarra blai egiteraino...

Dena alferrik izan zen. Abenduko goiz aintzigarreztatu batean hankak uzkurthurik eta gora begira zituela agertu zen behialako Balarrika eta azken boladako Pili, ezti koloreko bere bi begi samurrak betirako itxita zituela.

Osabak etsipen handiz hartu zuen albistea eta karobi aldeko pendizean, porrota ozpina dastatu zuen lekuan hain zuzen, lurperatu behar zela erabaki zuen aurrena gurutzea eta "Hemen datza Pilarika. Allah Akbar" idatziarekin, Minerrek proposamena aintzakotzat hartuz. Ingurukoei barregarri samarra iruditu zitzaion lur-emate erdi-mairu erdi-katoliko bat kurriloari egitea nahiz eta Pilarika izenekoa zen, eta guztien artean beste irtenbide "kontsolagarriago" ematea erabaki zen: disekatzea.

Hasieran osaba Naxariok ontzat eman zuen ideia, batez ere ohitura hori Aljeriatik gertu samar zegoen Egiptokoa omen zelako eta bertan antzinako errege edo faraoiei ere antzeko zerbait egiten omen zitelako, baina garestia eta konplikatu samarra iritzi eta gainera baserri guztia goitik behera eta ezker eskuin korritu ondoren toki oso egokirik ere aurkitzen ez zuelako hain hegazti handi eta prestua duintasunez erakusgai edukitzeko, baztertu egin behar izan zuen disekatu edo baltsamatzearen egitasmo hura.

Azkenean erdi-bide bat aukeratu zuen: Pilarika larrutu eta gorpuari lurra emango zitzaion eta lumajea belarrez bete eta atariko atalburuan josiko zuten elizako kurpitoan lzpirtu Santuaren usoa zegoen antzeratsu.

Eta halaxe egin zuten eta urteak eman zituen baserriko sarreran Balarrika-Pilarika-Pilik, bi hegalak, zabal-zabalik, etxeoak babesten eta bisitariei ongi etorri egiten. Osaba Naxariok ondoko urteetan lagun bat baino gehiago harrapatu eta josi zion inguruan korte egiteko edo segizio geldi baten gisara, harik eta osaba Naxariori berari ere oinak aurretik zituela azkeneko ate hartatik, Pilarikaren lumaje zarpailduaren azpitik pasa, elizako usoari azken agurra egin eta kanposantuko para-petoan betiko apostaturik gelditzeko orduak jo zion arte.

Urte bat edo beste gehiago iraun zuen zintzilik Aljeriara inoiz heldu ez zen "Grus balearica regulorum" haren azal maiztuak, harik eta zaharraren zaharrez txarako zakar-metara bota zuten arte hautsez, amelaunez eta zikinkeriaz erdi-desegina zegoelako. Sic transit gloria mundi. (Hala esango luke Don Iñaziok) Denborak ez du barkatzen eta garai bateko ehiztariak eta Balarrikaz argazki horixkaren bat edo beste gelditzen da kutxa zokoren batean, baita bien azken lekuko mutua izan zen atalburua ere pipiaren eraso gupidagabeari egunear-egunearn erronka eginez.